

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1454

37/2015 DEKRETUA, martxoaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailletako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena (behin-behineko langileak).

Urriaren 14ko 226/1997 Dekretuaren bidez, karrerako funtzionarioei eta lan-kontratuko langileei gordetako lanpostuen zerrendak onartu ziren. Dekretu hori hainbat aldiz aldatu da.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 14. artikuluan ezartzen duez, lanpostuen zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak barne hartu beharko dituzte, eta funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behineko langileentzat gordetakoak diren bereizi. Xedapen hori betetzeko, martxoaren 20ko 44/2007 Dekretua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailletako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartu zituen dekretua aldatzeari buruzkoa. Dekretu horrek, hain zuzen ere, behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendak onartu zituen, eta apirilaren 19ko 92/2005 Dekretua ordezkatu zuen, azken hori, 2006ko urtarrilaren 12an Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak emandako epaiaren bitartez, deuseztatu egin baitzen. Dekretu hori hainbat aldiz aldatu da; egun, apirilaren 9ko 189/2013 Dekretuak onartutako behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrenda dago indarrean.

Lanpostuen zerrendak Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko tresna gisa sortzen dira; horregatik, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu diren eta aldeko ebazpena eman zaien aldaketak sartu behar dira aldiari aldiari, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikulua eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko uztailaren 30ean hartutako Erabakia betetze aldera. Aipatutako erabaki horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzura dauden behin-behineko langileen araubide juridiko orokorra eta egiturazkoa ezartzeko proposamena onartu zen.

Lanpostuen zerrenda honek finkatzen ditu funtsezko ezaugarriak, betetzeko eskatzen diren baldintzak eta lanpostuen ordainsari-erregimenarekiko beharrezkoak diren zehaztasunak, guztiak ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere Erakunde Autonomoetako lanpostuen zerrenda arautzen duen apirilaren 12ko 78/2005 Dekretuaren 5.4 artikuluan ezarritakoaren arabera (urtarrilaren 16ko 6/2007 Dekretuaren araberrako idazkera). Horrek, alde batetik, 2005eko azaroaren 18ko Epaiaren epaitzan ezarritakoari erantzuten dio, eta, bestetik, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 15. artikuluan eta Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2002ko uztailaren 30eko Erabakian jasotako xedapenak batzen ditu.

Horren ondorioz, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenaz, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2015eko martxoaren 24an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak onartzea. Zerrenda horiek Dekretu honen eranskinean agertzen dira, eta apirilaren 9ko 189/2013 Dekretuaren bidez onartu ziren.

2015eko martxoaren 30a, astelehena

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Dekretu honek administrazio-bidea amaitzen du; hortaz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Jaurlaritzaren Kontseiluari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko martxoaren 24an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

2015eko martxoaren 30a, astelehena

1 ERANSKINA / ANEXO 1

Aldatu:

KODEA	DOTAZIOA	LANPOSTUAREN IZENA	SAILA	H.E.	ORDAINSARIA	LAN. MOT.	SAILKAPENA	DEDIKAZIO ERREGIMENA
5233	1	LEHEND. OHIARI-LEHENDAKRITZARI LAGUNTZ.I	LEHENDAKARITZA	2	20	N	ES	2
5233	2	LEHEND. OHIARI-LEHENDAKRITZARI LAGUNTZ.I	LEHENDAKARITZA	2	20	N	ES	2
5233	3	LEHEND. OHIARI-LEHENDAKRITZARI LAGUNTZ.I	LEHENDAKARITZA	2	20	N	ES	2
5233	4	LEHEND. OHIARI-LEHENDAKRITZARI LAGUNTZ.I	LEHENDAKARITZA	2	20	N	ES	2

Modificación:

COD.	DOTACIÓN	DENOMINACIÓN DEL PUESTO	DEPARTAMENTO	P.L.	RETRIBUCIÓN	TIP. PUE.	CLASIFICACIÓN	RÉGIMEN DEDICACIÓN
5233	1	RESP. SECRETARIA APOYO EX LEHEND-LEHENTZ	LEHENDAKARITZA	2	20	N	ES	2
5233	2	RESP. SECRETARIA APOYO EX LEHEND-LEHENTZ	LEHENDAKARITZA	2	20	N	ES	2
5233	3	RESP. SECRETARIA APOYO EX LEHEND-LEHENTZ	LEHENDAKARITZA	2	20	N	ES	2
5233	4	RESP. SECRETARIA APOYO EX LEHEND-LEHENTZ	LEHENDAKARITZA	2	20	N	ES	2

2015eko martxoaren 30a, astelehena

1 ERANSKINA / ANEXO 1

KLABEAK:

CLAVES:

LANPOSTU MOTA:

N Normalizatua

TIPO DE PUESTO:

N Normalizado

SAILKAPENA:

ES OINARRIZKO LANPOSTUA

CLASIFICACIÓN:

ES PUESTO ESTRUCTURAL

DEDIKAZIO ERREGIMENA:

2 Dedikazio berezia % 20

REGIMEN DEDICACIÓN:

2 Dedicación especial 20 %